# ELKARBERRI 59

Nº 59 Enero - Marzo 2018 / 2018ko Urtarrila - Martxoa Ejemplar gratuito Depósito Legal: BI-945-05 ISSN 2444-4065



## EGOITZA BERRIA ERREALITATE BIHURTU DA

Revista trimestral del Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

*Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko Hiruhilabetekaria*

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

# EFEOREN IKASTAROAK 2018 CURSOS DEL COFPV



**BILBO / BILBAO**

TERAPIA MANUAL Y PUNCIÓN SECA EN EL SÍNDROME DE DOLOR MIOFASCIAL. PUNTOS GATILLO MIOFASCIALES.

OTSAILA 02 FEBRERO



**BILBO / BILBAO**

FISIOTERAPIA OBSTÉTRICA: EMBARAZO, PARTO Y POSTPARTO

OTSAILA 16 FEBRERO



**BILBO / BILBAO**

ALGORITMOS DE EVALUACIÓN Y TRATAMIENTO DEL DOLOR MUSCULOESQUELÉTICO EN FISIOTERAPIA

MARTXOA 02 MARZO



**BILBO / BILBAO**

INDUCCIÓN MIOFASCIAL NIVEL II

*IZEN-EMATEAREN HASIERA: OTSAILAREN 5ean 10:00etan*

APERTURA DE INSCRIPCIÓN: 5 DE FEBRERO A LAS 10:00

APIRILA 07 ABRIL



**GASTEIZ / VITORIA**

ESCUELA DE ESPALDA: PILATES TERAPEÚTICO, HIPOPRESIVOS Y ENTRENAMIENTO FUNCIONAL.

APIRILA 14 ABRIL

***EFEOk ikastaroaren lekua edo data aldatzeko eskubideari eusten dio, irakasleen beharrizanak eta antolatzaileekin zerikusirik ez duten arrazoiak tarteko direla.***

***Ikastaroetako inskribapenaren ordenagatik bananduko dira plazak, webgunearen bidez egin beharrekoa (www.cofpv.eus)***

**El COFPV se reserva el derecho de poder modificar el lugar de celebración del curso o alguna fecha, debido a necesidades de los docentes y razones ajenas a la organización.**

**Las plazas se otorgarán por riguroso orden de inscripción a los cursos, debiéndose hacer a través de la web colegial (www.cofpv.org)**




**LEIRE PEÑA**
Vocal del COFPV
*EFEO-ko Batzordekidea*






# A POR EL 2018

Comienza un nuevo año. Es el momento en el que se suele hacer balance del año que acaba de terminar. Personalmente me suele gustar quedarme con algún buen momento de los vividos y que sirva de punto de partida para comenzar con energías renovadas este 2018.

El 2017 ha sido un año en el que he sido partícipe de una gran cantidad de muestras de agradecimiento por el trabajo realizado; un "estoy mucho mejor" o un "ya no tengo dolor" hacen que el esfuerzo dedicado a seguir invirtiendo en formación merezca la pena. Ésto coincide con una encuesta de la que se extraía que los fisioterapeutas tienen un alto grado de preparación, más del 70% realizan postgrados y másteres al finalizar su carrera. Hay una gran cantidad de motivos personales y laborales por los que se considera la formación un pilar fundamental en nuestra profesión pero siempre se tiene como último fin realizar el mejor tratamiento para cada uno de nuestros pacientes.

Considero que es muy importante crecer como profesionales manteniendo ese vínculo tan especial fisioterapeuta-paciente que nos caracteriza. En muchas ocasiones, las personas que acuden a nosotros no entienden sus dolencias y nuestra labor, aparte de realizarles el tratamiento de fisioterapia que consideremos más adecuado, es serles sinceros con las expectativas de mejora del tratamiento, derivar los pacientes que no estemos capacitados para tratar... todo ello hace que la visión que se tiene de nuestra profesión sea la correcta y que los tratamientos ofrecidos sean de calidad. Si se sigue esta premisa, se seguirán manteniendo los resultados extraídos en un estudio donde se concluyó que el 80% de los pacientes que recibieron servicios de fisioterapia estaban satisfechos con la calidad de la asistencia recibida.

Pese a encontrarnos frecuentemente con obstáculos externos a nuestro trabajo, como pueden ser las largas listas de espera en la sanidad pública, el creciente aumento del intrusismo por parte de otras profesiones no sanitarias... es necesario continuar día a día, paciente a paciente realizando nuestro trabajo de la mejor manera posible y así la profesión seguirá avanzando en la dirección correcta. También como una parte importante de nuestro crecimiento personal, tal y como se indica en un estudio realizado en EEUU donde se concluye que la fisioterapia es la tercera profesión que más felicidad genera en la persona que la realiza, un dato desde mi punto de vista relevante y que comparto plenamente.

Al comenzar un nuevo año se suelen plantear una serie de retos para mejorar nuestros hábitos de vida, costumbres... como pueden ser hacer más deporte o dejar de fumar. En nuestra profesión también tenemos barreras que superar: proporcionar una mayor base científica a las técnicas utilizadas en los tratamientos, formar parte en los diferentes equipos multidisciplinares, ofrecer una atención individualizada y especializada a cada paciente... Todo ello con el objetivo final que siga aumentando ese porcentaje de pacientes que valoran positivamente nuestra labor. Para lograr todo ésto será necesario llevar a cabo una serie de cambios y un proceso de transformación donde debemos estar a la altura. Por un 2018 lleno de retos e ilusiones!

# *2018AREN BILA*

Urte berria hasi dugu, eta sasoi honetan, berrikitan amaitu den urtearen balantzea egin ohi dugu. Nik neuk, une on bat aukera ohi dut bizi izandako une on guztien artean, 2018a indarberrituta hasteko abiapuntua izan dadin.

2017an, esker oneko adierazpen askoren lekukoa izan naiz egindako lanagatik; "askoz ere hobeto nago" eta "ez daukat minik dagoeneko" bezalako esaldiak entzunda, argi dago prestakuntzan inbertitzen jarraitzeko ahaleginak merezi egiten duela. Honekin batera, inkesta batean bildutako emaitzen arabera, fisioterapeutek prestakuntza-maila handia dute eta % 70 baino gehiagok graduondoak eta masterrak egin ohi ditu karrera amaitutakoan. Arrazoi asko daude, pertsonalak nahiz lan arlokoak, prestakuntza gure lanbidearen funtsezko oinarritzat jotzeko, baina paziente bakoitzaren mesedeko tratamendurik onena egitea da gure helburu nagusia.

Nire iritziz, oso garrantzitsua da profesional bezala hazten jarraitzea, gure lanbideari dagokion fisioterapeuta eta pazientearen arteko lotura berezi-bereziari eutsiz. Askotan, gugana datozen pertsonek ez dakite zein gaixotasun duten, eta guk, fisioterapia-tratamendurik egokiena emateaz gain, zintzotasunez jokatu behar dugu, tratamenduari atxikitako benetako hobekuntza-aurreikuspenak azalduz eta sendatu ezin ditugun pazienteak beste profesional batzuen esku jarriz... horri esker, gure lanbideaz dagoen ikuspegia zuzena izango da eta geure esku dauden tratamenduak kalitatezkoak. Horrela jokatuz gero, bere horretan mantendu ahal izango dira azterlan batean bildutako emaitzak, zeinetan, fisioterapia-zerbitzuak jaso dituzten pazienteen % 80 pozik azaldu baita hartutako asistentziaren kalitateaz.

Eguneroko jardunean askotan gure zereginarekin zerikusirik ez duten kanpoko hainbat oztopori aurre egin behar izaten diegun –esaterako, osasun-sistema publikoko itxaron-zerrendak, eremu sanitariotik kanpoko zenbait lanbideren intrusismo gero eta handiagoa...–, aurrera jarraitu behar dugu, egunez egun, pazientez paziente, gure lana ahalik eta ongien eginez, lanbideak behar bezala aurrera egiten jarrai dezan. Baita gure hazkunde pertsonalaren zati garrantzitsu bezala ere, izan ere, AEBetan egindako ikerketa batek frogatu duenez, fisioterapia da horretan dihardutenengan zoriontasun handiena sorrarazten duen hirugarren lanbidea. Arras datu adierazkorra, nire ustez, oso-osorik partekatzen dudana.

Urte berriaren hasieran, hainbat erronka planteatu ohi dira gure bizimodua, ohiturak eta abar hobetzeko; adibidez, kirola sarriago egitea edo erretzeari uztea. Gure lanbidean ere gainditu beharreko oztopoak ditugu: tratamenduetan erabiltzen ditugun teknikei oinarri zientifiko handiagoa ematea, diziplina anitzeko hainbat taldetan parte hartzea, paziente bakoitzari arreta bereizia eta berezitua eskaintzea... Betiere gure lanari buruzko balorazio positiboa egiten duten pazienteen portzentaje horrek hazten jarrai dezan. Horretarako, nahitaezkoa izango da zenbait aldaketa egitea, baita neurria ematera behartuko gaituen eraldaketa-prozesu bat ere. Erronkaz eta ilusioz betetako 2018aren alde!

## SUMARIO / *LABURPENA*

59


| SUMARIO | | LABURPENA |
|---|---|---|
| Cursos | 2 | *Ikastaroak* |
| Editorial | 3 | *Editoriala* |
| Noticias | 4 - 17 | *Berriak* |
| Opinión | 18 - 19 | *Iritzi* |
| Asesoría Jurídica | 20 - 21 | *Aholkularitza Juridikoa* |
| Anuncios | 22 - 25 | *Iragarkiak* |
| Colegiados | 26 | *Elkargokide* |
| Biblioteca | 27 | *Liburutegia* |


ELKARBERRI


Presidencia y Dirección: Juan Luis Herrero Erquiñigo
Coordinación: Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo
Realización y Maquetación: J&J Creativos
Fotografía: ORO
Edita: Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Publicación trimestral: 2.860 ejemplares
Ejemplar gratuito para distribuir a los/as colegiados/as



Queda prohibida la reproducción parcial o total de los contenidos publicados en este ejemplar sin autorización expresa escrita de la Junta de Gobierno del COFPV.

Elkarberri y el COFPV no se hacen responsables del contenido e imágenes de los anuncios publicitarios, así como de los contenidos de los artículos publicados, ya que se corresponden con la opinión de sus autores.



*Lehendakaritza eta Zuzendaritza: Juan Luis Herrero Erquiñigo*
*Koordinazioa: Komunikazio, Publizitateko eta Protokolo Batzordea*
*Gauzatzea eta Maketazioa: J&J Creativos*
*Argazkigintza: ORO*
*Argitalpena: Euskadido Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala*
*Hiruhilabeteko argitalpena: 2.860 ale*
*Elkargokieei emateko dohainezko alea*



*Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe.*

*Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.*

# BATZAR I

## EFEOk egoitza berria estreinatu du

Joan den abenduaren 16an, 2017ko bigarren Batzar Nagusia egin zen Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren egoitza berrian. Batzarrean, batzorde bakoitzaren arduradunek urte osoan egindako jarduera eta kudeaketen emaitzak aurkeztu zituzten, baita 2018rako proiektua ere.

Elkargokide ugari bildu zen egoitza berriaren inaugurazioral, instalazio berriak ezagutzeko irrikaz (Bilboko Ibarrekolanda kaleko 15. zenbakian jarri dute). Inbertsio handia egin behar izan da egoitza berria sortzeko; alabaina, ez da aparteko beste kuotarik aktibatu behar izan, kudeaketa ekonomiko bikainari esker.

Askotariko jarduerak proposatu dituzte 2018. urterako, elkargoaren interesei erantzuteko asmoz:

**Komunikazio, Publizitate eta Protokolo Batzordea.**
2018an ere gauzatuko da "12 hilabete, 12 osasun-gomendio" kanpaina, herritarrei fisioterapiaren abantailak azaltzeko eta horien inguruan ohartarazteko. Profesional guztiek esku hartuko dute mezuak zabaltzen, hedabideak barne, irratian kanpaina eginda, telebistan, prentsan, sare sozialetan... Horrez gain, Fisioterapiaren Munduko Eguna ospatuko da, zeina urtetik urtera gero eta aberasgarriagoa baita hala fisioterapeutentzat nola herritarrentzat. Jarduera hori ezingo litzateke aurrera atera EFEOko boluntarioen laguntza izugarriagatik ez balitz.

**Intrusismo Batzordea**
Lan egiten jarraituko du herritarrak sentsibilizatzeko zenbait kanpainaren bidez, lanbideari duintasuna emateko eta Fisioterapiaren arloko intrusismo profesionalari aurre egiteko helburuz.

**Aholkularitza Juridikoa**
Zaintza-lanak egiten, kontrola eramaten, babesa emateн eta informatzen jarraituko du, besteak beste. Azpimarratu da informazio-zerbitzuari eskaera askoz gehiago egin zaizkiola fisioterapeuten jardunari eragiten dioten alderdiekin lotuta.

**Presidentetza**
2018an ere EFEO ordezkatuko du administrazio publikoetan, Eusko Legebiltzarrean, Publizitate Batzordean, hedabideetan eta elkargo sanitarioetan.

**Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ikerkuntza Batzordea**
2018rako, oraingoz, sei ikastaro antolatu dira:

- Control motor y disfunción lumbo-pelvica.
- Fisioterapia obstétrica, embarazo, parto y post-parto.
- Puntos gatillo y punción seca.
- Inducción miofascial nivel II.
- Escuela de espalda: pilates terapéutico,



# NAGUSIA

hipopresivos y entrenamiento funcional.

- Algoritmo de 7 pasos para lumbalgia y lumbociatalgia.
- Propuestas formativas on-line: oposiciones, metodología e investigación.

**Diruzaintza**

2018rako aurrekontu orokorra proposatu eta onartu zen, eta honako alderdi hauek aipatu ziren bereziki: egoitza berrian egindako inbertsio handiaren ondoren, egoera ekonomikoa ona da, Komunikazio Planaren, prestakuntza-eskaintzen, lan-erregimeneko postuen eta Plataforma Digitalaren partidei eutsi zaielako. Elkargokide- eta matrikula-kuotak izoztuta uztea onartu zen.

Eskaera eta galderen atalean, zenbait kontsulta egin ziren, eta EFEOko ordezkariek hitzeman zuten kontsultatuko zutela eta kasuan-kasuan konpontzen saiatuko zirela.

- Osakidetzako ustezko intrusismo-egoerez galdetu zen. Jakinarazi zen erizainek gidatzen eta ematen dituztela zenbait prestakuntza-eskaintza; esate baterako, zoru pelbikoaren lanketa, kinesiotape, ariketa terapeutikoa, arnas fisioterapia eta beste batzuk.

- Eskatu zen Osakidetzari eskatzeko Giza Baliabideen Sailak zuzen ditzala lekualdatzeen lehiaketaren oinarriak, duela gutxi onartutakoak, praktiketako tutorearen eta instruktorearen kontzeptuei dagokienez. Abenduaren 21a finkatu zen erreklamatzeko epemuga gisa.

- Adierazi zen Osakidetzarekin harremanetan jar gaitezkeela, oposizioak prestatzeko ikastaro bat egiteko asmoa eta proiektua azaltzeko. Bertaratutako batzuen iritziz, Euskal Osasun Zerbitzuak interesgarritzat joko luke beharbada, gaur egun indarrean dagoen gaitegia zaharkitua baitago.

Azkenik, EFEOk eskerrak eman nahi dizkie Fisioterapiako III. Euskadi Sarien biltzarrera, inaugurazióra eta banaketara joan ziren guztiei. Eta, bide batez, elkargoaren proposamenetan modu aktiboagoan parte hartzera animatzen zaituztegu.

***Idazketa Kontseilua***



# EGOITZA BERRIA ERRI

Biltzar Nagusia eta Fisioterapiako III. Euskadi Sarien banaketa aprobetxatuz, hainbeste ahaleginen ondoren sortutako egoitza berriaren inaugurazio ofiziala egin genuen.

Emaitzak merezi du, eta Gobernu Batzardeko kideok espero dugu egoitza berri hau, denon egoitza, Euskadiko Fisioterapiaren epizentroa izatea elkargokideen laguntzarekin batera.

***Idazketa Kontseilua***































# EALITATE BIHURTU DA



# FISIOTE
# III. EUSKADI SARIEN BA

Joan den abenduaren 16an, Fisioterapiako III. Euskadi Sariak banatu ziren EFEOren egoitza berrian, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren eskutik. Sariketarako berariaz aukeratutako epaimahai espezializatu batek hautatu ditu saridunak, eta aurkeztutako lanak maila handikoak izan dira; hori dela eta, oso zaila izan da saridunak hautatzea, eta, lehenengo aldiz, bost kategoriak saritu dira.

2015ean abiatutako egitasmo honen helburu nagusia da gure ogibidean egunero-egunero egiten dugun lan handia ezagutaraztea, ez soilik pazienteekin egunero dugun harremanarekin lotutako lana, baizik eta baita Fisioterapiaren arloko profesional handiek pertsonen bizi-kalitatea eta osasuna hobetzeko helburuz ikertzen, osasuna sustatzen eta ikasten ematen duten denbora ere.

Horretarako, bost kategoria ezarri dira, Fisioterapiaren lanari dagozkion alderdiak biltzen dituztenak:

- Fisioterapiari buruzko informazio-testurik onenarentzako saria
- Karrera-amaierako lanik onenarentzako saria
- Fisioterapeuta onenarentzako saria
- Fisioterapiako ikerketa-saria
- Fisioterapiaren arloko ibilbide profesional onenarentzako saria



Oraingo honetan, gurekin izan ziren Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu Jon Darpón, Eusko Jaurlaritzako Osasun Batzordeko presidenteorde Jon Aiartza eta EAJko legebiltzarkide Begoña Otalora. Bihotzez eskerrak eman nahi dizkiegu hirurei, ekitaldian parte hartzeagatik eta laguntzeagatik. Hitzaldietan, Darpón jaunak eta Aiartza jaunak gure lanbidearen garrantzia nabarmendu zuten, eta Euskadiko herritarren osasuna eta bizi-kalitatea oso maila altuetara irits dadin denon artean lanean jarraitzera animatu gintuzten.



**Fisioterapiari buruzko informazio-testurik onenarentzako saria**

Fisioterapiako profesionalok egiten dugun lanaren berri ematea ezinbestekoa da herritarrak kontzientzia daitezen eta guk, profesional sanitario gisa, pertsonen osasunaren eta ongizatearen alde egiten dugun ekarpenaren garrantziaz jabe daitezen.

Horregatik, informazio-testurik onenarentzako saria sortu zen, hedabideek gure informazio- eta sentsibilizazio-helburuak transmititzeko egiten duten ekarpen handiari balioa emateko.

Aurten, telebistari eman zaio saria; zehazki, ETB2ko Ahora saioari, ikus-entzule kopuru handieneko ordutegian eman digun estalduragatik. Saria Jon Herrerok banatu zuen, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko presidenteak, eta Adela González Ahora saioko aurkezleak, Lierni Mugarza zuzendariorde eta koordinatzaileak eta Odei Esnaola

# RAPIAKO
# NAKETA

erredaktoreak hartu zuten.



**Karrera-amaierako lanik onenarentzako saria**

Saria, 300 euroko beka bat, Fisioterapia Gradua amaitu berri duten eta gure lanbidean hasi diren pertsonentzat da. Aurten, Alejandro Proy Acostak jaso du saria, "Evidencia sobre los exergamingcomopropuesta de abordaje en la prevención de caídasen el adultomayor" lanagatik.

Saria Jon Aiartzak banatu zuen, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko presidenteordeak.



**Fisioterapeuta onenarentzako saria**

Lehenengo aldiz eman da sari hau ex aequo, eta Sergio Blancok eta Igor Sanchok jaso dute, Euskadin Fisioterapia sustatzeko eta babesteko erakutsi duten dedikazio eta jarreragatik.

Igor Sancho 18 urte aritu da kirol-medikuntzan, eta Bartzelonan eta Danimarkan ibili da lanean harik eta Donostian klinika bat zabaldu arte. Atletekin, eliteko kirolariekin eta kirol-taldeekin lan egin du, hala nola Gipuzkoa Basketen. Profesional gisa garatzen jarraitzeko asmoz, ikertzen dihardu oraindik ere; iaz, esaterako, Akilesen tendonopatia zuten lasterkariak ikertu zituen Australian.



Sergio Blanco Gasteizko Kineé zentroko zuzendari eta fisioterapeuta da. Esparru oso zabaletan lan egin eta ikertu du. Aditua da kinesiologian, posturologian eta faskuapraxian, eta espezialista kirolaren fisioterapian. Urteetan izan da Deportivo Alavéseko lehenengo taldearen fisioterapeuta, eta ospitaleko hainbat errehabilitazio-zerbitzutan lan egin du.



Karrera-amaierako saria bezala, honako hau ere Jon Aiartzak banatu zuen.

### Ikerketa-saria

Ikerketa-lana, hain zuzen ere, Fisioterapia osasun-diziplina gisa garatzeko eta finkatzeko oinarrietako bat da. Aurtengo ikerketa-saria, 1.000 euro eta 500 euroko ikerketa-beka bat, Xabier Monasterio Cuencari eman diote, “Comparación de la eficacia de los métodos de feedback frente espejo vs. guíaláseren la corrección del valgo de rodilla en la sentadilla monopodal” lanagatik.

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu Jon Darpónek entregatu zuen saria.




### Fisioterapiaren arloko ibilbide profesional onenarentzako saria

Sari honen bitartez, agerian jarri nahi dira bizi osoa fisioterapian lan egin duen profesionalak. Aurtengo saria Emilio Morláni eman diote. Aitzindaria izan zen lanbide honetan; 1965ean hasi zen Basurtuko Ospitaleko fisioterapeuta gisa, eta 1969tik 2007ra arte Etxebarriko fabrikan eta Mutua General de Seguros eta Mutua de la Fraternidad mutualitateetan lan egin du.

1995ean, lehen saria jaso zuen Fisioterapeuten Espainiako Elkartearen 1. sinposioan, jarduera librearen kategorian. Fisioterapeuten Espainiako Elkartearen fundatzailea da (21 bazkide-zenbakia duena), eta 1969tik 1997ra bitartean Euskadiko ordezkaritzako Zuzendaritza Batzordeko kide izan zen. Gainera, Fisioterapiako Unibertsitate Diplomaturako I. Ikasketa Plana sortzeko batzordeko kide izan zen 1984an, baita Euskadiko lehenengo Fisioterapia Eskola sortu zuen batzordeko kide eta Osasunaren arloko Publizitate Engainagarriari buruzko Batzordeko kide ere.

Sari hau, ikerketa-saria bezala, Jon Darpónek eman zuen.



Saridun guztiek esker ona adierazteko hitz batzuk esan zituzten eta lanbide honetan aurrera egitera animatu gintuzten; haien hitzetan, lanbide gaztea da oraindik, baina etorkizun handikoa, eta profesional ugari daude diziplina honek ematen dituen onura handiak erakusteko interesez.

Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak denok animatu nahi zaituztegu lan garrantzitsu hau egiten jarrai dezazuen. Guk Fisioterapiaren Euskadi Sariak bezalako ekimenak gauzatzen jarraituko dugu, eta espero dugu 2018ko edizioan zuen hautagaitzak jasotzea

***Consejo de Redacción***





# ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURU BERRIA

Urtarrilaren 1etik aurrera, Erantzukizun Zibileko Aseguru berri bat dugu indarrean. Kolektibo profesional gisa, oso pozik egon gaitezke lortu ditugun kontratu-baldintzengatik eta onetsitako estaldurengatik.

Negoziazioen ostean, Gobernu Batzorde honek kontratua Zurich konpainia ospetsuarekin sinatzearen alde egin du. Iaz arte eskuratutako estaldurei eutsiko zaie, eta poliza kolektiboa baldintza berri eta interesgarriekin aberastuko da.

Lurralde-eremuaren aitortza zabaldu egingo da, eta, orain arte ez bezala, aseguruan sartuta egongo dira Europar Batasuneko edozein auzitegik deklaratu eta aitortutako erantzukizun zibilak. Orain arte asegurutik kanpo geratzen ziren Espainiakoak ez ziren auzitegien aurrean jarritako demanda guztiak.

Halaber, estatuan euren titulua homologatzeko eta/edo egokitzeko tutoretzapeko praktikaldia behar duten eta atzerriko titulazioa duten profesionalak ere aseguratu egingo dira eta estaldura jasoko dute. Orain arte ez zen berme hori aintzat hartzen eta egoera horrek arazo ugari sortu ditu Euskadin gertatuko kasuei egoki erantzun ahal izateko.

Bereziki aipatu behar da Mesoterapia izenez ezagutzen dugun teknika (gaixotasunak tratatzea, gorputzak kaltea jasandako aldean hainbat sendagairen dosi txikiko dermis barneko injekzioak jarrita) estalduretatik kanpo geratu dela. Negoziazioaren xedea izan da Fisioterapiaren arloan ezar daitekeen edozein teknika guztiz estaltzea, eta oso zaila izan da teknika hori sartzea; izan ere, azken urteotan, teknika horrek fisioterapiarekin lotzearen aurkako ebazpen juridiko eta akademiko ugari izan ditu.

Erantzukizun Zibileko Aseguru berriaren baldintza bereziak ezagutzera eta aztertzera gonbidatzen zaituztegu. Aurki egongo dira eskuragarri elkargoaren webgunean, eta zalantzaren bat argitu nahi baduzue, jarri harremanetan gure aholkulari juridikoarekin (setien@cofpv.org).

***Idazketa Kontseilua***



# EUSKADIKO ARRETA GOIZTIARRAREN ERREGULARIZAZIOARI BURUZKO PRENTSAKO KRITIKAK

Joan den abenduan, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargoak, Euskadiko Logopeden Elkargoak eta Bizkaiko Psikologoen Elkargoak prentsa-ohar bateratu bat atera zuten, eta egunkari inprimatu nahiz digital nagusiek argitaratu zuten.

Eusko Jaurlaritzak eta hiru aldundiek ez diete inolako jaramonik egin guk aurkeztutako kexa eta epatze ugariei. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiko gizarte-zerbitzuen arduradun gorenak, Isabel Sánchez Roble andreak, aldizkari bateko argitalpen batean auzitan jartzen zituen erabiltzaile eta familiei orain arte emandako zerbitzuaren bermeak. Hori guztia dela eta, korporazio profesionalek komunikatu bateratu bat atera dugu, non balio berbera eman nahi izan baitiegu hala zentro itundu berriei nola ez ituntzea eta Arreta Goiztiarraren 13/2016 Dekretuan jasotako eskakizunak ez betetzea erabaki dutenei.

Besteak beste, adierazi dute itundu gabeko zentroak akreditatu gabe daudela, eta "terapiak profesional kualifikatuek eta behar bezala akreditatuek emateak" ustez kalitatea hobetuko duela eta lasaitasuna emango duela (http://m.deia.com/2017/10/16/bizkaia/el-nuevo-servicio-de-atencion-temprana-ofrecera-mayor-garantia-a-las-familias?random=871371). Baieztapen horiek, baina, engainuzko eta ausarkeriazko irudi irreala ematen dute, eta zalantzan jartzen dute orain arteko jarduna eta ehunka profesionalen gaitasuna, zeintzuek, gure ustez, ezin hobeto lan egin baitute eta erabateko konpromisoaz jardun baitute haur eta familiekin.

Era berean, fisioterapeutak, logopedak eta psikologoak ez gatoz bat euskal herritarrei erakutsi nahi dieten ustezko esparru "arrosa" horrekin. Izan ere, uste dugu beharrezkoa dela erabiltzaileei, profesionalei, familiei eta aldundiko teknikariei eurei hainbat arazo ekarri dizkien ezartze-prozesu horren alde onak zein txarrak erakustea.

Jarraian, komunikatu osoa irakur dezakezue:

***Denuncia del Colegio de Psicología de Bizkaia y de los Colegios del País Vasco Fisioterapia y Logopedia sobre el nuevo decreto de atención temprana:***

*LA DIPUTACIÓN DE BIZKAIA DESAUTORIZA A UNA GRAN CANTIDAD DE CENTROS ASISTENCIALES Y PROVOCA UNA GRAVE DESIGUALDAD TERRITORIAL PARA ATENDER A LOS NIÑOS Y NIÑAS*

- ***El nuevo decreto desencadena una desigualdad territorial en la prestación de los servicios. Por ejemplo, en Busturialdea hay 0 centros autorizados; en Encartaciones solo hay un centro en Zalla; en Uribe Kosta solo hay un centro en Urduliz***
- ***Hasta un total de 49 centros integrarán la red concertada de Atención Temprana en Bizkaia, cuando hasta ahora eran 107***
- ***Las numerosas exigencias recogidas en el nuevo decreto sobre las condiciones mínimas a cumplir de los centros de actuación resultan desproporcionadas y muchos no se han acogido, pero siguen prestando el mismo servicio que hasta ahora estaba avalado por la Diputación***

***Información de contexto:***

*Recientemente, el Boletín Oficial del País Vasco ha publicado un Decreto por el que se regularán los centros de Euskadi que pueden dispensar la Atención Temprana en base a unos requisitos estructurales, funcionales y de personal. Entre varias cuestiones, el nuevo decreto explica cómo deben ser las instalaciones de estos centros en cuanto a disposición de la entrada, número de baños, despachos, etc. Asimismo, el Decreto especifica como requisito para formar parte de la nueva red de concertación pública que en cada centro debe haber dos profesionales que presten servicio en tres de los cuatro ámbitos de actuación para los trastornos del desarrollo que se trabajan en la Atención Temprana (movilidad, cognición, lenguaje y emocional).*

*Ante este nuevo escenario, los distintos colectivos profesionales que intervienen en los Equipos de Intervención en Atención Temprana de Bizkaia (Psicología, Fisioterapia y Logopedia) quieren expresar su malestar y preocupación por las medidas que se adoptarán con la entrada en vigor*

*de este Decreto el próximo 1 de enero en lo que se respecta a su implantación en el territorio vizcaíno, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.*

***De esta forma, el Colegio Oficial de Psicología de Bizkaia, el Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco y el Colegio de Logopedas del País Vasco se han unido y quieren explicar estas cuestiones:***

***1.- Requisitos innecesarios que ponen en duda los servicios prestados hasta ahora***

*La Diputación Foral de Bizkaia destaca que la regulación de centros se fundamenta en una "mejora de la calidad del servicio". Esta especificación deja en mal lugar a los centros que no están convenidos con el decreto porque repercute en su imagen. Parece que no son centros de calidad cuando en realidad sí lo son y han venido prestando un excelente servicio que hasta ahora estaba acreditado por la propia Diputación. La mayoría de los centros que han quedado fuera del decreto lo han hecho por decisión propia. Hasta un total de 49 centros integrarán la red concertada de Atención Temprana en Bizkaia, cuando hasta ahora eran 107.*

*Exigimos el máximo respeto al excelente servicio prestado hasta ahora por parte de centros y profesionales que, obligada o voluntariamente, no se han acogido al decreto por términos de sostenibilidad empresarial. Dichos centros siguen prestando una adecuada atención como lo venían haciendo hasta ahora.*

*En opinión de nuestros profesionales, las numerosas exigencias recogidas en el nuevo decreto sobre las condiciones mínimas a cumplir de los centros de actuación resultan desproporcionadas y, en casos, injustificadas. En muchos casos nuestros colegiados y colegiadas nos han expresado directamente la inviabilidad de la remodelación y/o adecuación de las instalaciones. Son centros que invierten en formación e instrumentalización por encima de cambios urbanísticos injustificados a través de la experiencia de años.*

*En este contexto, el nuevo decreto explica cómo deben ser las instalaciones (disposición de la entrada, número de baños, despachos, etc.). Muchos centros no están dispuestos a poner baño dentro de sus instalaciones cuando ya disponían de este recurso de forma comunitaria. Y en muchos casos no están dentro del decreto por no cumplir unos metros requeridos, aún cuando no son necesarios para la prestación profesional que se ofrece en estos centros. No se trata de centros rechazados sino de centros que no han presentado documentación por no ver necesario acometer reformas urbanísticas para ofrecer un servicio adecuado a su oferta profesional.*

*Entendemos una adecuada regulación de la Atención Temprana y del servicio prestado que redunde en el beneficio del usuario y sus familias pero no de forma excluyente y con imposiciones que no se corresponden con las necesidades sanitarias y arquitectónicas para esta problemática.*

***2.- Escasa distribución geográfica de los centros y pérdida de cercanía a las familias***

*El Decreto Foral ha desencadenado una enorme asimetría y desigualdad en la prestación de los servicios, hasta el punto de que dependiendo de dónde sea el lugar de residencia del usuario, este tendrá que recorrer muchos kilómetros para recibir la atención debida. Existe una disparidad geográfica en la prestación del servicio y una limitación de las familias en la elección libre del centro y/o del profesional.*

*El Gran Bilbao concentra el 50% de los centros, mientras que en otras comarcas existen déficits notables: en Busturialdea hay 0 centros autorizados; en Encartaciones solo hay un centro en Zalla; en Uribe Kosta solo hay un centro en Urduliz; en Lea Artibai hay un centro en Lekeitio sin Logopedia y en la zona de Arratia Nervión solo hay un centro en Ugao-Miraballes y no tiene Psicología.*
*El Decreto Foral, por tanto, pone en riesgo los principios básicos que necesariamente han de ser contemplados en la intervención integral en Atención Primaria como la proximidad de la prestación sociosanitaria. Asimismo, este nuevo escenario supone una merma en el derecho de las familias a elegir centro.*

*Asimismo, en estos momentos muchos niños y niñas que, en estos momentos, están inmersos en terapias y tendrán que moverse de su centro para cambiar a un centro de la nueva red de atención temprana. Estamos hablando de niños con una gran fragilidad y requieren de atenciones especiales. Encontramos numerosos abordajes y tratamientos que deben ser respetados hasta la finalización de los mismos, sin contemplar fechas tope que obliguen al siempre perjudicial cambio de estrategias y profesionales.*

***3.- Exigencia de ser centros con varias disciplinas cuando no es necesario***

*El Decreto Foral marca como requisito que para entrar en la nueva red de concertación, en cada centro debe haber dos profesionales que presten servicio en tres de los cuatro ámbitos de actuación para los trastornos del desarrollo que se trabajan en la Atención Temprana (movilidad, cognición, lenguaje y emocional).*

*La exigencia de unos requisitos de recursos humanos se puede entender en el contexto de aquellos centros centros que pretendan ofrecer una atención interdisciplinar dentro del sistema, pero está injustificada al ser exigida a una gran mayoría de centros unidisciplinares que vienen ofreciendo una respuesta satisfactoria a un amplio porcentaje de la población diana. (Por ejemplo, un centro que se dedique a Logodedía o Psicología exclusivamente).*

*Se debe permitir la continuidad en el desempeño de este servicio público a estos centros unidisciplinares que se rigen bajo unos criterios de calidad y funcionamiento sobresaliente para del desempeño de un área en concreto.*

***4.- Ausencia de Logopedia y Fisioterapia para evaluar a los niños y niñas***

*El decreto regula que la prescripción de atención temprana se hará como hasta ahora, mediante el EVAT (Equipo de Valoración de Atención Temprana), liderado por la Diputación Foral de Bizkaia, en colaboración con el sistema de Salud (Osakidetza) y de Educación que estudiarán la situación del niño o niña y las necesidades de intervención de una manera global. Todos los casos de valoraciones de menores de seis años, tanto para la Atención Temprana, Dependencia o Discapacidad se consideran urgentes.*

*Tras la valoración se concederán los tratamientos de atención temprana por áreas, intensidad y duración, y se informará a las familias sobre los centros de desarrollo infantil donde pueden acudir para iniciar dicha atención.*

*En estos equipos de evaluación existe una injustificada ausencia de profesionales de la Fisioterapia y Logopedía, siendo otros profesionales quienes toman estas decisiones. Logopedia y Fisioterapia siguen siendo "prescritas" por profesionales que poco o nada saben de evaluar estas necesidades. La prescripción de la llamada psicomotricidad se basa en criterios poco definidos -cuando no desajustados-. Su prestación puede caer en manos de cualquier persona con un título no avalado por criterios oficiales.*

***5.- Incongruencia en la acreditación de los profesionales***

*El Decreto Foral establece que la acreditación de la cualificación profesional de quienes van a dispensar esta atención se realizará por medio de las titulaciones oficiales de Psicología, Fisioterapia, Logopedia y Trabajo Social. En el caso de la psicomotricidad, no existe actualmente regulación sobre títulos, estudios que sirvan para la acreditación de la cualificación profesional en este campo.*

*Resulta indiscutible la exigencia de la titulación o cualificación adecuada para el ejercicio de la Psicoterapia, Fisioterapia, Logopedia o Trabajo Social. Sin embargo, la presentación y abordaje de la Psicomotrocidad nos invita a la confusión y ofrece u excesivo espacio a la interpretación*

***6. Ausencia de escucha por parte de la Diputación***

*Por último, queremos resaltar denunciar la absoluta indiferencia y falta de la más mínima intención de escuchar, atender y/o empatizar por parte de la Diputación a las numerosas inquietudes y sugerencias recibidas desde los distintos colectivos profesionales que intervienen en la Atención Temprana.*

***INFORMACIÓN DE CONTEXTO: SOBRE LA ATENCIÓN TEMPRANA***

*La atención temprana se define como el conjunto de actividades dirigidas a la población infantil, su familia y entorno, que tienen como finalidades: Detectar precozmente los factores de riesgo biológico, psicológico y sociofamiliar que pueden afectar al normal desarrollo del niño y las señales de alerta o cualquier alteración en el desarrollo; Instaurar las medidas terapéuticas individualizadas que permitan obtener el máximo de sus competencias, y alcanzar el máximo nivel de desarrollo personal y de inclusión educativa y social; Obtener una mejora en su calidad de vida y la de sus familias. Estas acciones van más allá de las necesidades habituales de salud infantil.*

Berehala agertu dira komunikatuaren inguruko erreakzioak. Hona hemen aipagarrienak:

| **BITARTEKO GRAFIKOAK** | **BITARTEKO DIGITALAK** |
|---|---|
| 27/12/2017 El Correo | 26/12/2017 europapress.com |
